



ZERO GOSE

HELBURUAK

- Munduko neska-mutilei **elikadura osasuntsua emateko beharra** ulertzea.
- Gure beharrekin alderatuta, **eskasia-beharrak ezagutzea**.
- **Justiziarekin eta ekitatearekin kontzientziatutako** komunitate bateko kide izatea.

GAITASUNAK

Hizkuntza-komunikazioa, **entzutea**, taldearekin elkarreragitea, **partiaidetz**a eta informazioa bilatzeak **pentsamenduak eta sentimenduak** ulertzen eta **adierazten** errazten dute.

EDUKIA

Elikadura-larrialdia albiste da?, **haurren gosea albiste da?** Elikagai osasuntsuen eskasia haur askoren bizitza erreal eta egunerokoa da, hausnartzeko unetxo bat hartuko dugu eta...
AZALERATZEN ZAIZKIGUN SENTIMENDUAK ENTZUNGO DITUGU.

JARDUERA

Irakasleak bost laguneko taldeak egingo ditu eta **HAURREN EGOERARI** buruzko informazioa bilatuko dute **SAVE THE CHILDREN-EN YOUTUBE-KO KANALEAN**.

Informazioa bilatzen amaitzen dutenean, talde bakoitza entzuten duen talde bihurtuko da. Taldeko kide bakoitzak **sentitzen duena adieraziko** du 3 minutuz, eta kide bat bere sentimenduak adierazten ari den bitartean, gainerako taldeko kideek entzun, onartu eta ulertu egingo dute.

Talde txikitan adierazpen egiten amaitutakoan, **nola sentituko garen adieraziko dugu gelan eta egoera konplexuetan** eta gureaz bestelako egoeran **dauden pertsonak ulertzen saiatuko gara**. Ideiak idatzita jasoko ditugu.

Beharrezko materiala: ordenagailu-gela edo bideoak ikustea etxeko lan gisa eman, paper jarraitua eta errotuladoreak.



KALITATEZKO HEZKUNTZA

HELBURUAK

- **Hezkuntza pobreziatik irteteko oinarrizko baliabide gisa** ulertzea.
- Kalitatezko hezkuntza mundu haur guztien **eskubide** gisa hartzea.

GAITASUNAK

Keinu bidezko komunikazio, ahozko adierazpena eta entzumenak banakoen eta taldearen ulermena, edukia adierazteko gaitasuna eta pentsamenduak ahalbidetzen dituzte.

EDUKIA

Hezkuntzaren ikaskuntzan hezkuntza-ikasketaren eta etorkizun on bat izateko balio positiboan arteko korrelazioa aurkitzen dugu. Kalitatezko hezkuntzan murgilduko gara lehen pertsonan, etorkizun on bat izateko errezetak egingo ditugu eta kalitatezko hezkuntzak merezi duen bultzada marraztuko dugu **hezkuntza-premisa** hauek arau gisa hartuta:

Irakurtzen ikasten badut, mundua entzun dezaket.

Ulertzen ikasten badut, munduari buruzko iritzia eman dezaket.

Idazten ikasten badut, munduari kontu diezaioket.

Iritzia ematen ikasten badut, munduan parte har dezaket.

Pentsatzen ikasten badut, munduari buruz hausnar dezaket.

Parte hartzen ikasten badut, mundua hobe dezaket.

Entzuten ikasten badut, mundua uler dezaket.

Sentitzen ikasten badut, mundua alda dezaket.

JARDUERA

Irakasleak lan-taldeak egiten ditu gelan, bost lagun taldeko, eta talde bakoitzari egitura bat esleitzen dio ausaz hezkuntzaren kalitateari buruzko edukian **aurkeztutako hezkuntza-premisetan marrazteko eta proiektatzeko**.

Irakasleak egiturak ausaz banatuko ditu taldeka: eskailera bat, espiral bat, erruleta bat, helize bat, harmaila bat, piramide bat...

Taldeak lanean hasiko dira **irudiak adostuz eta** hezkuntza-premisen **edukia islatuz** egituretan, hezkuntza-komunitateari irekitako "Munduko neska-mutil guztientzat kalitatezko hezkuntza bat nahi dugu = Hezkuntza funtsezkoa da pobreziatik irteteko" izeneko erakusketa egiteko.

Beharrezko materiala: paper jarraitua, kartulinak, hezkuntza-premisak, errotuladoreak, pinturak, arkatzak, erregelak, konpasa, erakusketa egiteko tokia...



GENERO-BERDINTASUNA

HELBURUAK

- Genero-aniztasuna **errespetatu eta zaintzea harremantzeko eta komunikatzeko** unean.
- **Emakumeen aurkako diskriminazio eta indarkeria modu guztiak baztertzea**, eta hori adieraztea.

GAITASUNAK

Adierazpen plastikoa eta keinu bidezko adierazpena, **hausnarketa**, **entzutea** eta munduan emakumeak dituen egoera anitzak aztertzeak **beste errealitate batzuen kontzientzia hartzea** eta genero desberdineko pertsonen arteko tratu-berdintasunaren eta zaintzaren aldeko bizikidetzari mesede egingo dion jokabide positibo eta adeitsua eraikitzea ahalbidetzen dute.

EDUKIA

Abusuak eta errespetu faltak genero-aldea eta sexu-aniztasuna desabantaila bihurtzen ditu, eta hori agerian geratzen da indarkeria-errealitateetan, nahigabeko haurdunaldietan, eskola-uzteetan, behartutako ezkontzetan...

Garrantzitsua da jakitea, emakumeen gorputza abusatzen bada, genero femeninoa jaiotzen denetik abusatzen bada, emakumeen ezaugarriak eta bertuteak ustiatzen badira gizonen pribilegioak mantentzeko, emakumeen beharrei ez ikusi egin eta haien ezaugarriak gutxiesten badira... Munduko populazioaren % 50 baino gehiago iraintzen, gutxiesten eta ustiatzen ari gara.

JARDUERA

Irakasleak 5 laguneko taldeak egingo ditu; talde bakoitzak izan beharreko bizitza eraikitzeko urratsak emango ditu, **nesken eta emakumeen bizitzak ilusioz beteta dauden, berdintasuneko egoerak bizi diren eta errespetua errealitate bihurtzen den istorioak berreraikiz komiki moduan.**

Taldeka berreraikitzeke istorioak partekatuko dira: "Mariak 12 urte ditu eta bere aita oso erasokorra da berarekin eta bere amarekin", "Aaqila Afganiakoa da, 8 urte ditu eta eskola utzi behar izan du gerrarengatik eta bere herrialdean dagoen indarkeriarengatik", "Abebak 11 urte ditu eta ezkontzera behartu dute, bere onespene gabe, bere familia oso pobrea delako", "Yoana bortxatu egin dute eta nahi gabeko haur baten esperoan dago", "Isabelek 14 urte ditu eta mutil-lagunak mugikorra zelatatzen dio"...

Amaieran **guztien artean** lana aurkeztuko dugu, baita garatutako sormena ere. Gainera, interesgarria da taldeek eta gelek egin dituzten lanen **erakusketa bat egitea ikastetxean.**

Beharrezko materiala: boligrafoa, arkatzak, papera, folioak, kartulinak, paper jarraitua, errotiladoreak, pinturak, erakusketa egiteko tokia ikastetxean...



MOBILIZAZIOA, BAKE-KULTURA ETA MUNDUKO HIRITARRAK

HELBURUAK

- **Bakearen alde dagoen komunitate aktibo eta global bateko kide izatea** baloratzea.
- **Bakearen kulturaren aldeko jokabideak eta ekintzak** ezagutzea.

GAITASUNAK

Partaidetza aktiboa egingo dugu bakearen alde, adierazpena bideratuko dugu, hitzak botako ditugu, **norbanakoen eta taldearen ekintzak bateratuko ditugu** komunitate justuagoak, duinagoak eta baketsuagoak eraikitzeko ardura hartzeko.

EDUKIA

Bakearen aldeko eskola-mobilizazio bat behar dugu; gerraren, hondamendien, indarkeriaren eta gerra-gatazken ondoren, neska-mutil asko janaririk eta urik gabe, familia urduri ikusten, beldurra eta heriotza sentitzen bizi dira.

Askotan, haurrak ez dituzte beren burua adierazteko eta sentitzen duten hitzetan jartzeko tresnak ezagutzen, indarkeria desegin nahi dugu, **indarkeria amaitzeko hitzak bilatuko ditugu** eta **ekintzak komunitate baten emaitza direla adieraziko dugu**, norbaitek bere on egitearekin laguntzen badu komunitate hori hazi egingo dela, eta garrantzitsua dela komunitatea osatzen dugun ekintzetan parte hartzea haurrek duintasunez, justiziaz eta bakean bizitzeko aukerak izan ditzaten babesteko.

JARDUERA

“Ongarritu dezagun bakea”, irakasleak gelako ikasle bakoitzari **abezedarioko letra** bat banatuko dio **bakearen kultura babesteko duen hitz bat osa dezan**. Partaide bakoitzak bakearen aldeko mantala sortuko du hitzarekin.

Apaindutako mantalekin lan-taldeka bakearen aldeko gosari kolaboratibo eta solidario bat antolatuko dugu ikastetxean edo herrian, eta gure mantalak diruaren truke truka daitezke eta/edo enkantean jar daitezke Save the Children-en proiektu solidarioak babesteko.

Beharrezko materiala: birziklatzeko ehunak, pintura, telan margotzeko errotuladoreak, soka, haria eta orratza, gosari solidario bat antolatzeko produktuak.

IKASITAKOARI BURUZKO HAUSNARKETA

- Ekintza edo arazo batean eragina duten faktore guztiak ezagutzearen garrantzia ezagutzen dugu? Iritzia eman baino lehen ulertzen saiatzea funtsezkoa dela uste dugu?
- Kalitatezko hezkuntza haurren bizitzan aldaketa handiak sortzeko tresna dela uste dugu?
- Gizonen eta emakumeen artean berdintasuna defendatzea zein garrantzitsua den eta nola errespetua eta duintasuna gure aldean gaineratik egon behar duen landu dugu?
- Bakea, elkarrizketan eta enpatian oinarrituta, guztion artean eraikitzen dugun zerbaiten moduan ulertzen dugu?